

ALKATEAREKIN BILERA 20211221

1.- Katenariaren zutoinak.

Udalak ez zeukan aldaketaren berri. Udal teknikariak ETSkoekin harremanetan jarri dira aldaketaren arrazoiak eskatzeko. ETS-k erantzun du aldatuko dituztela bi aukera emanez:

- 1.- Zutabe berdinak ipar aldera pasa, proiektuan bezala.
- 2.- Zutabe txikiagoak jarri baino bi aldetatik, lehen zeudenak baino meheagoak.

Gehiengoak lenengo aukera hautatzen degu. Alkateak esaten du bihar bertan ETSkoei esango diela.

Aldaketa otsailean egingo omen dute.

2.- Zaratak eta bibrazioak.

- Gaur egun ez da zaraten legea betetzen
- Trenbide bikoizketa egiterakoan, bibrazioen azterketa egin da?
- Zaratak eta bibrazioak ekiditeko hartutako neurrien kontrola eramaten da?

ETSk egin behar du azterketa hori. Esaten digu azterketa hori egiten ari dela ETS.

Baita ere azaltzen du Udalak ere herriko zaraten mapa eginda duela.

Komentatzen digu bere ustez hobe dugula ETSri idatziz eskatu azterketari buruz eta zer neurri hartuko dituzten. Gauza gehiago lortuko omen dugu bide horretatik joanez, buila eta zarata ateratzetik baino.

3.- Trenen zirkulazio bidea ipar aldekoa jartzea.

- Bi errail gelditzen den tartean, aurre ikusita dago trenen zirkulazioa hegoaldeko egitea, ipar aldekoa trenen aparkadero gisa uzteko. Hori aldatzea eskatzen degu.

Esaten du gai hori ere komentatu omen diote ETSri eta hasieran esaten digu ezinezkotzat jotzen dutela teknikoek baino gero esaten digu ETS aztertzen ari dela.

Puntu honetan esaten digu bera buru belarri ari dela Hegoaldeko azpi pasabidearen proiektua bultzatzen eta honekin trenbide osoa Lapurdi kalera eramango litzatekela. Hori omen da Alkatearen asmoa. Honekin bi estazioak bi errailekin lotuta geratuko lirateke. Urtarrilaren hasieran herritarrei azalduko omen digu eta ados bagaude ETSri aurkeztu. Lehen hiruhilekoan trazadu berria definituta geratuko litzateke.

Esaten diogu bitartean ia posible izango den trenen pasabidea ipar aldekoa izatea eta ez hegoaldekoa eta erantzuten digu obrak bukatzerako trazadu berria egongo dela.

4.- Trenbidea lurperatzea.

- Trena lurperatzeko eman behar diren pausoak ematen hastea:
 - + Zarautzko Plan Estrategiko 2030ean onartzea
 - + Herriko Plan Orokorrean era kontuan izatea

Plan Estrategikoan Zarautzek izango dituen erronkak eta nahiak jarriko dira baina trena lurperatzearen gaiak ez dauka zergaitik hemen sartu beharrik. Plan Estrategikoan egon gabe ere egin daiteke.

Plan Orokorrean sartu behar da. Zarautzko hiri antolamentuaren azken Plan Orokorra 2008koa omen da eta dagoeneko bere ustez aldatu edo errebisatu beharrean omen dago. Hori hurrengo agintaldian egin beharko omen da hortik aurrera bertan jarritakoa ejekutatzen joateko.